

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Basauriko Udala****Behin betiko onartzea Basauriko HAPOn Uriarte sektoreko UE 1 Egikaritze-Unitatearen birpartzelazio-proiektua.**

Basauriko alkateak, 2006.eko apirilaren 28 an, 2026/1955 Dekretua eman du Basauriko HAPOk Uriarte sektoreko UE 1 egikaritze-unitatea birpartzelatzeko proiektuari buruz, eta honako hau xedatzen du:

Lehenengoa: Arantza Salazar Semedo andreak aurkeztutako alegazioa osorik onestea, azalpen-zatian azaldutako arrazoiengatik.

Bigarrena: Basauriko HAPOk Uriarte sektoreko 1. Egikaritze Unitatearen (UE-1) Birpartzelazio Proiektua (Testu Bategina) behin betiko onartzea.

Hirugarrena: Akordio hau irmoa denean eta bertan aurreikusitako zenbatekoak ordaindu eta justifikatu ondoren, Hirigintza Kudeaketako Erregelamenduan eta hipoteken legerian aurreikusitako solemnitateekin eta baldintzekin, behin betiko onartutako Birpartzelazio Proiektuaren edukiaren administrazio-ziurtagiria egitea, Jabetza Erregistroan aurkezteko.

Laugarrena: Pilar Lavin Sanz andreari, Uriarte Sektoreko 1. Exekuzio Unitateko Hitzarmen Batzordearen izenean eta ordezkaritza, Basauriko Udalari 282.907,48 euro ordaindu beharko dizkiola irabazizko aprobetxamenduaren ehuneko hamabost lagatzegatik, onartutako Birpartzelazio Proiektuan aurreikusten denaren arabera.

Bostgarrena: Uriarte Sektoreko Hitzarmen Batzordearen pate bakoitzeko Basauriko Udalari lagatzeari, doan eta urbanizatuta (3.263,59 m²), tokiko eta ekipamenduko sistemetarako.

Seigarrena: Espedientea Zergen Kudeaketara bidaltzea, Birpartzelazio Proiektua onartzeagatik tasa eta gainbalioaren konpentsazio ekonomikoa likidatzeko.

Zazpigarrena: Ebazpen hau interesdunei jakinaraztea, eta ohartaraztea administrazio-bidea amaitzen duen ebazpen honen aurka errekurso hauek aurkeztu daitezkeela:

Zortzigarrena: Ebazpen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, iragarki-oholean, Udalaren webgunean eta probintziako egunkari batean argitaratzea.

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu daiteke, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita, Bilboko Auzialdiko Auzitegiko Administrazioarekiko Auzien Atalean.

Hala ere, nahi izanez gero, eta aurreko paragrafoan adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, Berraztertze Errekurtsoa jarri ahal izango zaio orain jakinarazten den administrazio-egintza eman zuen organoari, hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Berraztertze Errekurtso hori administrazio-isiltasunez ezetsitzat joko da, baldin eta, errekurtsok jarri zenetik hilabeteko epean, haren ebazpena jakinarazten ez bazaio. Azken kasu horretan, jakinarazpen honen lehenengo paragrafoan aipatutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzeko epea sei hilabetekoa izango da, ezespena administrazio-isiltasunez gertatu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Basaurin, 2026ko apirilaren 30ean.— Alkatea, Asier Irigorri Basaguren